Anemometroa

Igor Estankona

poesia Susa

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© 1998 Igor Estankona
© edizio honena: Susa
cc-by-sa Creative Commons Aitortu Partekatu
http://creativecommons.org/licenses/by-sa/3.0/deed.eu

Lehen edizioa paperean: 1998ko iraila
Edizio hau: 2011ko ekaina

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.com
Webgunea: http://susa-literatura.com

Berari,
liburu honen detonanteari,
konturatu barik nire bitartez
poema hegalarienak idatzi dituenari.

AHOLKUA

Ez dakit nondik heldu zaren
baina ondo etorria
insomnio honetara.
        Sugea aspaldi joan zen
        azal zahar bat baino ez da geratu,
        brontzezko zerbaiten moldea
        trumoia tximistaren ostean.
Ez dakit nondik heldu zaren
baina bakarrik zaude.
Hostoak ur azpian zorabiatu egiten dira
zoriontsuak
direlako baina zu ez
zuk hau irakur dezakezu eta zer edo zer
ulertu.

Ez dakit nondik heldu zaren
baina poesia deitzen duguna kanpamentu nomada
                bat da.
Bihar ez da hemen egongo.

Eskusu ezezagun zikinetatik
atera nahiko nuke.
Eguzkiaren printza beroak
nire azal belztugabean gozatu.
Kantoi ilunetatik ihes egin
itxaropen kutsatu gabekoen esperantzaz.
Laku gardenetan gorputz
—laster gorpu— unatua murgildu,
itsasadar petrolioztatuetako zikinduretatik aldegin
maitasun berriak aurkitzeko.
(...)
Bueltaka ibiltzeaz nekatuta, zulotik atera,
haur jolasetan elkarren sekreturik ezkutuenak
ezagutu
eta hegan hasi,
benetako askatasunaren jabe,
Gran Viako bankujabe putakumeak baino altuago
zerura zuzen,
zeruraino.
Shaktale

Zantzoa

Noiz datorren Momo

ZATOZ

Nire gorrotoak ez du amaierarik
ezagutzen
zure besoetan ez bada.

Leonard Cohen

Honek beste hura esateko ere balio beharko luke,
garrantzibako gertaera magikoak
paperera bihurtzeko.
Honek sare bat izan beharko luke
transparentziak harrapatu ahal izateko.
Nik maite ditut hostoen nerbioak eta gauza
errugabeenak
eta sukarraren dezimak.
Harearen azpian egon behar du hitzen batek
edo lanazko gitarraren batek
beldurrik ez diona sinpletasunari
beldurrik ez diona beso bat galtzeari,
irakiteari.
Zatoz nire odolean ipar-ekialderantz.
Paper zati batean kopiatuko zaitut
jantzi bi izango gara beti gazi.

ZER NAIZEN

Nire gorputzak
ukitzen nauten pertsonen antza hartzen du
paseatzen ditudan kaleena
eskapatzen zaizkidan gezurrena.
Apurka-apurka definituz doa
ibai bati edo erritmo jakin bati jarraituz.
Beti dago zerbaiten bezperan
aldaketaren begian.
Guztiz autonomoa dirudi
masturbatzen naizenean
atzazalak ebakitzen dizkiodanean
ispiluan jartzen dudanean.

Tatuaje ikustezinetan gordetzen ditu
jadanik ahaztutako uneak.

ILUNTZERO

Aulki horixka bat oparitu zidaten
kanelaz egindakoa.
Nekatuegi nagoenean
terrazan esertzen naiz.
Haragiak atsedena eskertzen dit
arimak zubiak eraikitzen dituen bitartean
errealitatearen gainetik.
Hura da nire portua.
Bertan asmatzen dut
ikusi ezin dudana.
Begiak itxiz gero
adibidez
hiru eguzki entzun ditzaket
bata bestearen atzetik
itsasora sartu eta hozten.

BAT

Maite nauzun jakiteko
lorea mutilatu behar badut,
nahiago dut duda horrekin
hil.

BI

Ikustearekin ez al duzu nahikoa?
zergatik eduki nahi duzu gorria?
azkenean ihes egingo dizu bilatzen duzunak
(laztanduz eta laztanduz
arrosak hondatu egiten dira).

HIRU

Gezurra da loreak atsegin ditugula.
Gezurra.
Haien egoera bat atsegin dugu
(zimeltzen direnean ez diegu
begiratu ere egiten).

LAU

Leihoaren ondoan jartzen dut
petaloak kontatzen hasten naiz
hitz goxoak esaten dizkiot
usaindu egiten dut etengabe
ura botatzen diot
(nire
lore
artifizialari).

SAGAR BATI BEGIRA

Eva laztana badakit ez zenuela asmo txarrik konpota gozo bat egin nahi zenuela bakarrik.

KATEA

Liburu sakratua irakurtzea zerura begira egotea
izarrei genitalak ukitzea ihes egitea
buztinezko ontzietan esaldiak gordetzea
iraultzari buruz kafeari buruz
galeriaren amaieran argiak nahasten dira
polenak nahasten diren antzera
udaberri asmatuetan eta errealetan
ibaia lotsatu egiten da arrantzaleek sareak
botatzen dizkiotenean sekreturik sakonena
bortxatuz lapurtuz aurkituz
ahalegindu zaitez intxaurrondoaren loraldia
geratzen
ikusiko duzu zelan ezinezkoa den
eta esfingeak katu homosexualen artean pozik
bizi dira geldi
loraldia bortxatzen lapurtzen aurkitzen ahalegindu
zaitez
ikusiko duzu ezinezkoa dela
sekreturik sakonena da sarea ibai lotsatian
polena nahasten da galeriaren amaierako argiarekin

izarrei genitalak ukituz zerura begira liburu sakratua itxi eta ihes egin dezakezun momentu berean.

Eguzki zatitxoak erortzen dira
zure duda begietatik.

Doctor Deseo

Zurekin hitz egitea oihanera itzultzea da
momentu batetik bestera gaseatuko duten
labirintuan galdurik egotea.
Zulatutako itsasoan ezkutatzen zara.
Beti dago beste norbait zure biriketan
dantzan.
Ezagutzen zaitut baina ez naiz ausartzen
nor zaren esaten.
Merkrominazko arrasto bat uzten duzu
ihesi zoazela.
Elurraren azpian daude bidali nizkizun gutunak.
Haietan azaltzen nizun ezin nizula ezer azaldu
haietan azaltzen nizun zergatik zikindu zen ura
zergatik erre ziren betazalak.
Begiratzen dizut eta ez dut erantzunik jasotzen
begiratzen dizut eta orain dela

milioika urte desagertu zen
izar baten argia baino ez zarela
iruditzen zait.

INSPIRAZIOA

Jertse urdinek batasuna kentzen dizuete
azalera
bolumena
orkatiletatik heltzen zaituztet baina zuek
hegan jarraitzen duzue eta nik
disolbatu egin nahiko nuke bizitzen jarraitzeko.
Ez dago ez haizerik ez surik.
Norbaitek pentsa lezake lorategi berean
egiten dugula otoitz
baina oker dabil.
Usoak progresio geometrikoan doaz hegoalderantz.
Ez zaituztet asteotan ikusi eta zubia bota dute.
Jadanik ezin naiz horra heldu.
Baina zuek hegan egin dezakezue honaino.
Zain nago.
Etorri eta lagun iezadazue poema simulakro hau
bukatzen.

BIDAIA

Bizitza platano azala baino galkorragoa dela
konturatu zenean
eskukada bat izar edatera atera zen
zortzietako trenean.
Pentsatzen aritu zen
leihotik ikus zezakeen paisaje ontza hari begira
zeinen arin desagertzen den guztia.
Ondoan esertzen zirenak ere
erantzun baten bila
edo beraien buruak berraurkitzera
irten ziren bulegoetatik
fabriketatik eta kafetegietatik.
Sustraietara itzuli nahi zuten.
Seguruenik horregatik ari ziren
bata bestearen sorbaldan
bisonteak marrazten.

EZTIA, GAUA

Airearen zeruaren laburpenarekin
ogia egin daiteke.
Ardoa, tulipana
zaldi berdearen azpian
erreka zeharka daiteke.
Maiatzaren ezizena ostirala galtzea da.
Botiletako mezuek beraien burua
besarkatzen dute izotzez.
Ateak bakarrik ireki dira azukrera
eta trenen larbekin, lurraren itzalekin
planetak ezkutatu egiten dira
bularretan.
Umeek hamalau irudi dituzte
alanbrea bukatu zaie
musika eta ijitoak ezkontzeko.
Galdetu orain mutu zure izena, erleak.

ASTELEHENEAN EZTANDA EGIN ZUEN BIZITZAK

Gela erdi-ilunean oraindik
altzarien forma konkretua bilatzen zuen
begizuloak kafez edo lurrez beteta
balitu bezala.
Jaiki zenean ispiluek ez zuten irudirik itzultzen.
Gas hilgarri baten itxurapean pasillotik abiatu zen.
Nekatuta zegoen amodioa beti norbaitekin egiteaz,
amodioa norbaiti egitea behar zuen
apur bat lasaitzeko
apur bat agintzeko
apur bat bera sentitzeko berriro.
Maite ez zuen norbait behar zuen.

Gauean kamarera gazte hura gonbidatzea ideia ona iruditu zitzaion.

Gauzak berriro horrela
gutxi gora-behera bere lekuan ikusteak
poztu egin zuen nolabait.
Dutxa hotza hartu zuen eta biluzik ibili zen

etxetik
besoak zabalik oreka galtzera
jolasten,
ore
ka galtzera
txikitan bezala alfonbra gainean.
Zoriona baino askoz gozoagoa iruditu zitzaion
sentipen neutro hura.

Eguerdi aldera zerua azkenengoz erre zen
eta hegazkinak su bolatan amildu ziren
lantzean figura desberdinak marraztuz.

ZETAZEO HANDIAK

Bazirudien zirrara zetorrela uraren gainetik,
landareen adina bikoiztu egin zela.
Esku zikinekin elkarren aurpegiak garbitu zituzten.
Pizturik zirauen bonbilla bakarrerantz korrika
zihoazen
biak.

Inguratzen gaituzten pertsonengana iristeko
guztiok behar dugun zirrikituaren bila
ahoan
sartu zion atzamarra.
Material hezeenaz egina iruditu zitzaion.
Eseri eta hankak zabaldu zizkion teatro goseti bat
bezala,
korreoz heldutako opari baten antzera
eta ume egin ziren sofara eroritakoan
eta han
listuarekin kurtsibaz idatzi zuten bizitza
eta han
burua sabel leun haren gainean

ulertu zuen azkenean
zer dela eta etorri ohi diren hondartzetan hiltzera zetazeo handiak.

GAUA ORAINDIK BATAILA IRABAZI BARIK

Txori-habiak sexu abegikorren antzera daude
abar artetik zafirozko sabaira begira.
Isilik esne epelez betetzen dira bularrak.

Urreak labain egiten du eguzkiarekin aurpegian.
Eguna gero eta beherago dator.
Ez dago inor instantea harrapatzeko eta hala ere
azken izpiek limoizko haziak ereiten dituzte
biharko...

Esan,
zeren beldur zara,
urreztatuz bazoaz ibili ahala?

Ikus ditzakezu itsasoko izarrak zeruan islatzen
eta iluntzea urtean behin sekula-belar bihurtzen.
Nabigakorra da paisajearen tristezia.
Galderak gari bihurtu dira bideetan.
Urak luma bat izan zitekeena daroa.
Bestela dena dago lasai.

Betiko moduan eltxoak argiaren bila.
Betiko moduan beldur gozo batek gidatzen ditu
izaki gehienak.
Inurri gorriek
lur azpiko barrunbeetan sartu
eta haurdun uzten dute mundua.

Hiria gorroto dudanean
opresiboegia delako edo hilerria
ematen duelako
edo umore txarrean jaiki naizelako
ez dut epidemiarik
uholderik ez suterik eskatzen.
Landareetan jartzen dut nire
itxaropen sendoena.
Apurka-apurka kaleak hartuko dituztela pentsatzea
atsegin dut
eta guri ez zaigula men egitea baino
geratuko.
Zuhaitzak txoriz betetako
arrain-ontziak izango dira.
Eltxoak odol tanta hegalariak.
Lurra ukitu bezain laster lurrunduko gara
seguruenik
baina bitartean barre egingo dugu
eta gaztainondoaren sustraiez eginiko giltzak
beharko dira
etxeetara sartu ahal izateko.

TURKESA ZENA GRISA DA

Eguzkia txori damutu bat bailitzan
laino artean ezkutatuz doa
eta turkesa zena grisa da
eta grisa zena beltza
eta umeak umeak dira
etxerantz korrika.
Latorrizko jendea leihoetan dago
tabakoa erretzen.
Airea hoztu egiten da
inor ez dadin kalera irten.
Euria hasi du inork ez dezan
zerurantz begirik altxa.

GRAMINEAK ZU

Gerrilla arraroa da udaberria,
analfabeto beilegi hura,
eta erleak badatoz eta zu alergia bat
zara
eta aireportuak amapolaz betetzen dira
eta gorri jartzen da eguzkiaren alaba
eta auto istripuek ilunak izaten jarraitzen dute
baina apur bat gutxiago
eta liburuak ireki egiten dira
eta ez dute onartu nahi
baina badakite
tristura
krisi egoeran sartu dela.

LUCYREN DIAMANTEAK

Munduko lanparen erdiak irentsi dituzu
eta gereziak itotzen dira
zure begi hertsietan.
Lokartu da begirada zaintzen zizun
polizia.
Ilea usaintzen duzu
besaulkian etzatean
eta nik ikusi nahiko nuke
beste ezer baino gehiago
zainetan lehertu zaizun inauteria.
Ikusi nahiko nuke
beste ezer baino gehiago
zelan zoazen igeri zeruan
Lucyren diamanteak lepotik jarrita.

ETZAN ETA ENTZUN

Etzan eta entzun
heriotzaren alabastroa, zure begietan, utzi nireetan
uzten diren bezala bahitutako umeak
ilargiaren piszinetan.

IA BETI PANDORA

... eta Hefestok modelatu zintuen buztinez
buztinez bizitza eman zizun
hitza
gaztetasuna
Jainkosen edertasuna
eta jada mortalen artean
gizateriaren gaitz guztiak biltzen zituen kaxa
ireki
zenuen
munduan zehar karga hura zabalduz
eta kaxaren hondoan
itxaropena baino ez zen gelditu
ordutik gara pertsonak
ordutik sentitzen dugu oinazea
ordutik daukagu arrain tropikal bat sabelean
Pandorari eskerrak gara gu
ez dugu bueltatu nahi zorion osora
perfekzio aspergarrira.
Inoiz ez.
Hemen egin nahi dugu barre eta negar
altzo berera itzuli arte.

Itzuleran gogoratuko dugun guztia
frutarbolak izango dira,
kotoi zatiak.
Irudituko zaigu guztia
ur tanta batean gertatu dela
kupula hartatik erortzean
pozik
erdi biluzik
lurrin astun bat bezala heriotzarantz.

All songs recorded live in autumn, 1997

TRAJE BELTZA JANTZITA

Auzuneko umeak tronpeta-jolearen inguruan
eseri dira.
Sonnyk traje beltza jantzi du
eta ilea busti.
Patata frijituen usaina dator sukaldeko leihotik.
Ez da kontzertu itzel honen grabaziorik
inoiz
egingo.
Eskuarekin lakuan jaiotzen diren
euliak uxatu
eta lehen nota irten da
nostalgiaz blaituta.
Gero berlina zahar bat pasatu arte
itxaron dute.
Hiru segundo. Bi. Bat.
Musika zabaltzen hasi da
geldiro
ilea hazten den abiaduran.
Umeek ortozik erritmoa zuzentzen dute
Afrikarantz.

URRIAK 1
MOMENTU FINKOA

Gisèle-k ezin aldendu du hilobi artean
pasiratzeko gogoa.

Ramon Saizarbitoria

Laztandu zuenean
ez zen laztan bat izan.
Laztana bere balio plastikotik harago eramateko
ahalegina izan zen.
Absolutuen bilaketan sinplifikatu egin zen
keinu hura
erregu hura.
Koleoptero beldurti bat ematen zuen
izara azpian ezkutatzen zenean.
Gisèleri hankapeak hatsarekin berotu zizkion
barkamena eskatzeko modu arkaikoenean eroriz.
Zelan edo halan ireki egin nahi zuen
bere barnean edo urrunago
zegoen atea.
Gisèle maite zuen arren
kanibal baten ondoan lo egitea zen.

Hori.
Kanibal baten ondoan lo egitea.
Azukrezko torre batetik burua botatzea.
Tuberkuluen indiferentzia baino ez zion eskaintzen
arnasa isil harekin ametsetan ari zen Gisèlek.
Noski beraien egoera orijinala ez zela hura
baina elkarrekin egon nahi bazuten
ezin zuten gela berean bizi.
Bazekien ez zela traizioa baina
gutxi falta zitzaion.
Betiko egon nahi zuen gasolindegian edo estazioan
Gisèleren zain.
Norbait etorriko ez bazen Gisèle izatea
ez zetorrena.
Airea ez da ezer eta haizeak ostera dena
daramana.
Hain bistakoa zen ilearen agor usaina...
malkoek jolas kaleidoskopiko politak sortzen
zizkioten
begien aurrean:
koadroak heze zeudela zirudien
lanparek arrainen sabelen distira itzultzen zuten.

Betirako ziren biak.

Seguruenik betirako ziren biak
eta barre egin zuen.
Kanpoan baina urrun
plastikozko lainoek nekez bultzatzen zuten denbora
egunsentirantz.

URRIAK 3
MOMENTU EBOLUTIBOA

Mundu bat zen berez sekula amaitu
nahi ez zen musu hura.

Jon Mirande

Lo egitea egurrezkoa da.
Gau osoa arrainak pizten
eta igelak eranzten ibili ondoren
iratzargailuak jo zuen
eta begiak erne zitzaizkien.

Gisèle ohe puntan eseri zen
amildegi hura, limite hura haztatuz
eta Gisèle lepoz sano ederra zela erabaki zuen.
Sano ederra.

Goizaldea gelara sartu zen
bere dantza konpainiarekin.
Atsegina zen Gisèle lepoz ikustea.
Gisèle ikustea.

Laztandu egin zuen
modu berri batean hala ere
tertziopelozko grabitate baxu batean
ilargitik heldu zaizkigun
irudi bakarretan baino astiroago.
Irribarre dardaratiz musu eman zion
sorbaldako puntu arbitrarioenean
eta bat-batean ezpainak
klarionez bete zitzaizkion
eta bat-batean bezperako tristura itzuli zen
izututa
besoekin inguratu zuen Gisèle tximistorratza
aingira elektrikoa
guraizezko azala.
Bilatuz
kaimanen hazitegi bat aurkitu zion pubisean.

Isiltasun polizial sakon hartan
gelako gauzek esanahi inmediatoa galdu zuten.
Petrolio orbanaren erdian Gisèle
argazkietan sutan harrezkero
eta milaka metrora Miguel Hernández ziegan
edo katuen bizarrak basamortuan

kontrabaxuetako hariak ziren.
Ilea miazkatu zion negarrez,
harriak miazkatzen diren antzera.

UDAGOIENA

Udagoiena neguaren zorroztarria da.
Iluntzean koloreek batak besteari izena
lapurtzen diote
eta azkenean zeruak gaua dakarrenean
zerbait dator zure ezpainetara
eta bertan geratzen da bizitzera.

Esaidazu edozer belarrira,
esate baterako orduak astiro doazela garanduz
edo olioz beteko didazula sabela eta su eman.
Euria hasi du ez dakigu nork.
Atso baten begiak lehertzen zaizkizu nire besoetan
apurtzen zarenean.
Trapuzko oilarren indarraz besarkatzen zaitut.

Apur bat itxaroten baduzu
zuhaitzek bibliografia galdu arte adibidez
gimnasta tristeak etxera erretiratu arte adibidez
afaltzeko zer edo zer aurkituko dizut
eta kartoi epel horien azpian, zazpigarrenez jaioko
gara.

EZ DAGO HAIN GARBI

Gogoratzen naiz hotel hartako taberna
nahiko iluna zela
eta hiru metrok banatzen zituztela
gure edalontziak.
Etorkizunera salto eginez hurbildu nuen aulkia
eta ze izen zuen galdetu nion.
Berak abileziaz aldatu zuen gaia.
Zigarro bat opatu nion.
Ez dakit hartu zidan.
Egia da nire gelara igotzea proposatu niola
korapiloa izan ginen
haginka egin nion
argitu egin zuen
eta beharbada
hurrengo goizean
jadanik jantzita zegoenean
eta atea ixtear
nik esan nion lehenengoz
maite nuela.
Baina ez al da lausoagoa guztia?
Ez al zidan berak ere

antzeko zerbait esan
agian askoz lehenago
bezperan tabernara sartu eta segituan
begien bitartez
edo bularren mugimendu batekin?

POEMA HIDRAULIKOA

Euriak tap tap tapatzen du
asfalto hotza.
Airea josiz tantak lainoetatik argazkira.
Telefono kabinetan ahotsak usteldu egiten dira
zenbaki hura gogoratu ezinik.
Zure irudimena baino ez da emakume horren
aterkia. Emakume horren irudimena
zure aterkia baino ez da izan.
                Baina ez, ez dago zu.
                Eta seguruenik ez zaude bera.

Beharbada emakume hori ezagutzen duzu
segundo zahar bat itzuli denean bere titien erpinak
zure lepoaren kontra daudelako
eta gatza
                gatza mingaina besapetik irristatzean
orain dela hamar urte edo datorren astean
zango labirintiko bi hiru lau
zaldi zoroak zaunka eta eztanda

kolibria eta lorea eta Eros hatxixa banatzen
eta azal bat non edan non lo egin non kanpatu
orgasmoa/elektrizitate deskarga
bukatu da
akzidentala zeharo noiz emakume hori
taxitik irten da
rantz doa
raino helduko da
edo maite izan zaitu etorkizunean
soldadutza garaian ezagutu zenuenean adibidez.

Gerta daiteke baita ere zergatik ez
zuri itxaroten egotea
zure abizena idatzita edukitzea pospolo-kaxa batean.
Batzuetan jantzia lisatzen diozu
eta zure emaztea da.
Hain da elastikoa denbora
non aterkia itxi bezain laster
emakumea desagertu egin baita
begiratzen ez dizun zerbaiti begira utzi zaitu
eta gogoratu zara ez zenuela inoiz soldadutza egin:
emakumeek ez dute
soldadutzara joan beharrik.

Parkean elkar besarkatzen ari den bikote horri aterkia haizeak daramakio.
Zu izan zaitezke edo ez hiruretako bat.

SUGEA

Horregatik heldu naiz etxera lehentxeago
horregatik igo ditut eskailerak
hain isilik
eta horregatik ireki dut atea
ez neukala uste zenuen
giltzaren kopia horrekin
horregatik eman duzu buelta eta
amuarrainen abileziaz ihes egin didazu
besoetatik eta horregatik
zangotrabatu behar izan zaitut
eta lurrera
erori
gara
horregatik
ez dizut kasurik egin
barre artean iraindu nauzunean
horregatik lehertu dira limoi bi nire eskuetan
horregatik askatu dizkizut
fraketako botoiak
horregatik
ukitu dizkizut ezpainak

eta ahoa zabaldu duzu
zabaltzen diren bezala erretzen doazen bitartean
arrosak edo paper zatiak
horregatik itzali dut argia
horregatik egin dut dena hain azkar:
defentsa prestatzeko astirik
izan ez dezazun.

JENDEAK ERLOJUAK APURTU DITU

Tabernak ixtear daudenean
eta orduak erabiliegi
urrunduz doaz pausoak
eskala isiletan.
Zeruaren zeruan
ezjakintasuna arrautzak jartzen ari da
eta portutik sirena hotsak ontzi lasaien bidaia
iragarri nahian dabiltza.
Hotzak espaloiak besarkatzen ditu.
Bake lasaian dago airea
onartzea baizik ez daukalako
erritmo hau, agindu hau, iluntasuna.
Sare berberean katuak zein mozkortiak
gerizpeek xakera jokatzen dute
eta gaueko tximeletek orbitak marrazten dituzte
farolen inguruan.
Jendeak erlojuak apurtu ditu.
Orain itzultzen bakarrik daki.
Autobusetara goizalde apur bat sartuko da laster.
Bitartean ilargiaren laurdenak
munduaren erdia zurbiltzen du.

MEMORIA BIDALI NUEN ZURE BILA

Eta zuk jakin ez arren, nik ikusi zaitut
atea gurutzatzen ezetz esan gabe.
Luis García Montero

Memoria bidali nuen zure bila
eta ezin izan zintuen osorik aurkitu.
Zure ipurmamiak ekarri zizkidan
zure ahotsa
zure saihetsen arkitektura.
Egia esan nahikoa nuen horrekin.

Ohe imajinarioan etzan zintudan.
Irribarre bat jarri nizun.
Denboraren hari finetik tiratzean
ilea askatu zitzaizun.
Ezin dut esan aingeruen sexua zein den ez
dakidanik.
Beste zerbait musukatu nuen,
arinagoko zerbait, baina
berriz errealak ematen genuen gezurraren erdian.

Ni han nengoen orduan.
Zu ere han zeunden askoz lehenago.
Memoria bidali nuen zure bila
eta ezin izan zintuen osorik aurkitu.
Begirada barik begiratzen zintudan.
Abisurik gabe belar hezeekin erre zitzaizkidan
sorbaldak
eta ustekabeak mila aldiz biderkatu zuen
odolaren zoriona.
Gau desberdinen mosaikoan zeunden
ni bezain presente zu
azkenerako ezin zen bereizi nork asmatzen zuen
noren irudia. Nor isurtzen zen
noren barruan.
Kronologikoki izerdi hura ez zen gurea
baina izaretan zegoen.

Loak hartu gintuen.
Iratzarri nintzenean goizeko hamarrak ziren
eta argi zegoen guztia.

Oso argi.

MARGARITA BORTITZAK ETA UTERORA ITZULI

Iraupena: 1’19”

Hasberriak gara iluntasun honetan
bizitzak kolpe bakar batez deskorapila gaitzake
eta ederra bezain hutsala da ahalegin hau
nola ukitzen duten hala ere elkar gure bakardadeek
gure melodrama luzeek.
Kapital patetiko hori bildu eta euripean goaz.
Zoritxarrekoak lehen ere baginen
baina orain kontzienteak gara.
Nik ez diat ezer konprenitzen ahal
esango diogu heriotzari
kristautasun formei uko egin ondoren beldurrez
kaka eginda
pilotutasuna sentipen atsegina zelakoan
bonben gainean egote horrek gerra
desagertaraziko balu bezala.
Ilargi gehienak erori dira
hain gaude nekatuta hain haginka egingo nizuke
mingainean

egunero zeharkatu behar gutaz eginiko tunel
zaharra
kateak aspaldi kendu zizkiguten
baina orain
gu geu gara gu geu atea-zabaldu-nahi-ez-dugunak
argia gorroto dugunak.
Eztabaida bizantziarretan sartuta gabiltzan
bitartean
mundua sumin purifikatzaile bete-betean dago.
Ez da faltako bolondresik gu hiltzeko.
Moskuren aginduak zehatzak dira.
Esan ez dutela honaino etorri beharrik.
Esan lana erraztuko diegula gutxienez.

HIRIA UTZI AHALA

Autobusaren kristalak
paisajez betetzen doaz.
Ez dakit non igo zaren eta normalean lo egoten naiz
jaisten zarenean.
Horregatik zalantzan jarri ohi dut
zaren/ez zaren.
Lainoak zeruaren hezurrak direla ematen du.
Uda balitz sorbaldak agerian eramango zenituzke.
Aurrerantz joan beharko nuke
zure ondoan eseri
izena edo sua edo gau bat eskatu
baina
egia esan
ez dit gehiegi ardura nire
indar faltak.

Seguruenik ametsetan
paper protagonista bat emango dizut.

BIZITZAREN JABETZA GORPUTZEN GAIN

Haizearen atzamarrekin zure gorputza
esploratzen
interruptorearen bila
zentimetro karratu erogenoen bila
lautada guztiak
zokogune bakoitza
birkreatuz asmatuz marraztuz
nigandik irtengo balira bezala zure bazterrak
eta ilargiak zainetan itsasgorak sortu
algak ekarriz ileekin nahas daitezen.
Tinpanoa harizpi apurkorrena
kaltetzeko beldurrez
uraren tonoa aukeratzen dugu
iluntasunean elkarri hitz egiteko.
Izerdiak arrainak izan ginela
gogorarazten digu
eta leihoak
egun-argi dela.
Orduan begirada infinitutik gauden lekura
itzultzen dugu emeki.

ZEREMONIA

Ez dakit zergatik bukatu behar duten bikoteek
hain solemneki.
Hitz egin egin behar izaten omen da,
dena argi uztearren.
Psikodrama ederrak sortzen dira horrela.
Hilkutxei prezintoa jartzea edo antzeko zerbait
gorpuak bere terrariotik
korrika ihes egin ez dezan.
Telefonoa.
Non? Ondodaubostetan.

Bilbon izan zela uste dut. Seietan.
Peta bat egin genuen.
Eguzki izpiek betiko trapezio horixka
marrazten zuten barran.
Berak soberan zekien zergatik zen krisi hura
azkena:
ez zitzaizkion gustatzen
ileak komunean
edo musikaz hitz egitea ideiarik gabe.
Nik ere antzeko sentipen

usteldu bat neukan.
Nik ere gorroto nuen maite ez nuenean.
Ez zitzaidan gustatzen bere omnipotentzia
bere autosufizientzia eta afirmatibitatea
eta batez ere
nire lagunik onena ligatzeko zuen obsesio hori.
Baina isiltasuna deserosoa da.
Bere burua defendatu ezin zuen bakarrari
bota genion errua:
maitasuna zein konplikatua den komentatzen hasi
ginen.

ZERTARAKO

Luna que se quiebra
sobre la tiniebla
de mi soledad
¿en dónde estás?
Chavela Vargas

Gordeleku antiaereotik irten nintzen
zure bila.
Zorotzat hartu ninduten baina ezin nuen
zure bulba
hatz erakuslearen puntan usteltzen utzi.
Aurkitu behar zintudan.
Ausente baino nahiago zintudan erreta.
Zulatuta edo nire ondoan.
Damutu zait hala ere honaino etortzea.
Zaindariek barre egiten didate
arrazoi osoz gainera.
Zertarako bidaia guztia
zertarako
ez bazeunden gas ganbaretako gorpuen artean?

Inperio garaia

Kuartzozko txoriak
denboraren orratzetan
pausatuta
betidanik,
betirako,
kuartzozko txoriak
denboraren apologia eginez.
Kuartzozko txoriak
eta beraien kantu monotonoa

tak-tik-tak-tik...
taktika eternal batean,

tik-tak-tik-tak...
diktadura bat zaintzen bezala.

KRETAN IDATZIA

Zuon estatuak botatzen ahaleginduko gara beti
baina horrek ez du esan nahi
borondatez egiten dugunik.
Gure hizkuntzan guduak
beste era batera kontatzen dira
eta ia beti irabazle atera ohi gara.
Estua da gure hiria itsasertzean
ahula gure flota
baina badakigu ausartak izaten,
badakigu gure hilobiak omentzen.
Ez dio ardura nondik zatozten
edo ze mezu dakarzuen.
Gudu zelaia berdin bihurtuko da
infernurik beroena
denontzat.
Horregatik bidali dizuegu mezulari hau
papiro honekin.
Arrantza, garia eta dantza maite ditugu
baina badakigu oinazea jasaten eta zabaltzen,
zuon emazteak alargun utziko dituzue hona
bazatozte

zuotako bat soilik itzuliko da
hemen ikusitakoa konta dezan
bake garaian uzta zaintzen duten jainkoek
armak hartuko dituzte
eta sua eta ura
amilduko dira.
Zazpi ilargi iraungo ditu zigorrak.
Erretira zaitezte.
Sentitzen dugu baina ezin dugu
txikiagoak izan,
bestela historiaren galbahetik behera
eroriko gara.

LURRALDE BERRIAN

Atzean utzi nahi duzu sufrezko denbora
eta ahalegin horretan
maite zaituztenen lepoak erretzeko
prest zaude.
Hori ez da txarra.
Ez dizut beraiengatik esaten.
Beraiek ere zu bezala orbita egokiaren bila ari dira.
Alferrik delako esaten dizut.
Ihesa delako sentimenturik bakunena.
Bidearen bukaeran ez dago hormarik ez aduanarik.
Lurralde berrira erraz sartzen da jendea.
Usainduz eta usainduz zaporea hartzen zaio.
Tigre bat ikusiko duzu
izar iheskor batetik edaten
baina
lurralde berrian ere
berdin
sentituko zara.
Zurekin joango zara zu etengabe.

ORAIN BEZALA

Arnasaz inguratuta egon arren sentitzen duzun bakardadea
hori da zigor zeldarik estuena
hori da paparra kobrez betetzen dizuna
hori da zure borondatearen kontra zoriona
itxi begiak
hobeto pentsatzen da begiak itxita
—sakonago zara zu—
etorriko dira lainoak eta euria
jo egingo zaituzte agian
jo egingo zaituzte
egizu lo haizeak leihoa zabaldu nahi du
oraindik gogora dezaket
zelan laztantzen nizun burua
zelan zen loa gordeleku seguruena
beldur zinenean
orain bezala.

HAN

Heldu nintzenean karea baino ez zegoen
karea eta muskerrak
lastoa
soldaduak
aingeru erreak
lau orratzeko erlojuak
kraterrak
denborazko dunak eta trapuak
pertsonaia mitologikoak
bide arrakalduak
azuleiu goriak
bizikleta ahaztuak
kristal zatiak
maletak errautsez beteta
hego-haizea hezurrak sakabanatzen.
Egarriak azkenean ahoa neurtu zidan.
Probintzia lehorrenean nengoen.

BIHAR EGUN HANDIA IZANGO DA

Izter gazteei begira nago.
Eskua luzatzen dut eta ez dakit ze izen jarri
ukitzen ari naizenari.
Sandaliak kendu
ezpata bazter batean utzi
eta etxera sartu gara.
Ahotsarekin gerezi helduak utzi nahi nizkioke
entzumenean.
Horregatik hitz egokiaren bila bidaiatzen dut
ontzian hegaztien bila abiatu ohi naizen
pazientzia berberarekin.
Merkatutik gentozela jakin ahal izan dut
kristauei ihesi zeharkatu zituela mendiak
eta zoriontsu dagoela ni bere ugazaba
berria izateaz.
Oraindik ez dauka jainkorik
baina laster tenplura eramango dut
petaloz bataia dezaten
berandu bataiatzen diren guztien antzera.
Ilea laztandu diodanean lotsaren aureola

urratu diodala sentitu dut.
Zahartzaroan bere ondoan ihartuko naiz
berak garbituko dizkit hankak esnearekin
eta harpa jotzen ikasiko du herrian.
Bere bular arrosak ibis bi bezain tente daude
gogotsu
desiratzen dutena seinalatuz.
Keinu batekin ezetz esan diot
lotara joan behar duela
bihar egun handia izango dela
emakume bihurtuko baita
eta nire usaina eta abizenak hartu.
Irribarrean jaioterria nola ahazten zuen
sumatu ahal izan diot.

Atean geratu naiz biluztu
eta ohean etzan den arte.
Ordaindu dudanari gutxi deritzot,
Bizantzioko saltzaileak esaten zuena baino
askoz ederragoa da.

ISPILUA

Bizitzak hiltzen du,
ez Heriotzak.
Heriotzak egiten duen gauza bakarra
bizitzak hildakoen gorpuak biltzea da
gudu zelai hartatik ere ibili zen barrezka dantzan
eguzkiaren gurpila mendietan lurrundu eta gero
lurretik hamar zentimetrora hegan
hilotzituen zuku gastrikoak edanez
eta hizkuntza urrun batean gezurrak esanez.
Tirano ankerrenaren erradiografia zirudien.
Musu isilak banatzen zituen
odol gehiegi galdu zutenen artean.

Mozkorturik
herrixkara abiatu zen
abere ahulak bilatu
agure gaixoei azken esperantza itzali
ume gosetiak otzara beltzean sartu
eta biziraungo zutenen izenak ikastera.
Dorretxe erdi deuseztuan sartu zen.
Jaunaren alabak negarra orrazten zuen.

Ispiluaren aurrean bere eskuak
urre zurizko arrain bi ziren
dar dar
lau
zirela zirudien zirela.
Heriotzak ez zuen ordura arte egundo
ispilurik ikusi ispilurik.
Ukabilkada batez zazpi zatitan apurtu
eta zorrotzenarekin
zainak ebaki zituen.

ZER DA EDERTASUNA

txikitako oroipena

Ohe abandonatu berrian
zure zerbait dago oraindik.
Pertsiana igo duzu eta kristal birfinduzko txute
batean
sartu zaizu espazioa gelara.
Gauerdian deitu dizutenez, eta gero eskegi,
gaua zati bitan banatuta
gogoratzen duzu.
Beste behin zeharkatzen ahalegindu zara
minaz jositako zelaia.
Beste behin.
Once again.
Begira kanpora...
utzidazu asmatzen
neguaren amaierako
bakardadea
eta zu haurtzaroko erreka bazterrean edo
hondartzan
baina ia beti hondartzan
itsasoak bere esku umelekin lehorrean utzitako

harriei begira.
Bederatzi urterekin izan zen hori.
Harrietako bat hartu
ez dakizu borobilena
        edo leunena
        edo beltzena iruditu zaizulako
eta olatuen kontra jaurti duzu.

ITZULERA

Nire erdialdea ez dago hemen.
Gela gudaldi estatiko eta isilean higatuz doa
eta galtzen ari naiz nabarmen.
Forma jakinik gabeko zerbait bihurtu da
arratsaldea leihoan.
Lenny Kravitzen disko bat falta zait
eta txarrena da ez dakidala nori ostia
utzi nion.
Berdin dio.
Jantzi egingo naiz eta deitu egingo zaitut eta
geratu egingo gara eta ez zara agertuko
eta eskailerak jaisten ditut oihuak edo gosea
jaisten diren antzera
ikustezin
eta kalean behera berriro gogora dezaket
zer den
arnasa hartzea.
Gauez egindako likidoa naiz,
gel ilun bat.
Tabernara sartzean ez dut inor hiltzeko gogorik
errege bihozberak zerbeza hotza eskatzen du

eta argi ahulek non izan zara
non izan zara
non izan zara
esaten didate belarrira
edo hori uste dut.

BEHARRA ETA LANA

Ni lehen idazlea nintzen.
Apartamentu bat neukan arrakastaren errebaleko
auzune batean.
Eskua ipurdi borobilen
eta bular konikoen gainean jarrita
egiten nuen lo.
Pobrea eta duina nintzen.
Argitaratu nituen liburuek arrakasta handia izan
zuten
lagun minen artean.
Urte batzuk geroago bularrak apur bat obalatuago
zeuden
eta ni apur bat nekatuago
eta merkataritzari ekin nion.
Pisu bat daukat konformismoaren
kale zentrikoenean.
Ez doakit txarto.
Funtsean lan berbera da.
Begira ezazu kaxa horien barrura:
hori da jendeari okela dela esanez
saldu behar diodana.

GUDALDIA

Garaipena zein derrota
biez
elikatzen da dinamo gorri ikustezina
eta jainkoak gure alde ez badaude ere
ez al da ederra ikustea zelan
zatitzen dituen ezpatak
olatu nikelatuak?

Hostoz betetzen den edalontzia da bihotza.
Inork ez daki estandartea nork daraman.

Aurrera.
Ezpainak zoratu arte aurrera.
Zergatik ez?
beharrezkoa al da zuzentasuna?
nork esan du arrazoirik daukagunik?
ez al dago egia bakarra burrukan bertan
kondentsatua?

AHMED

Quan es vulga i onsevulga,
pedra i poble,
aquesta pluja de pedres.
Per què Ahmed?
Per què llences aquesta pedra?
El soldat, no és massa lluny?
Saps prou bé que no arribaràs
amb els teus braços de nen
i, malgrat això Ahmed,
malgrat això, has llençat aquesta pedra,
aquesta bocí de cor petri.
El soldat, no és massa lluny, Ahmed?
Per què, aleshores perqué, malgrat això
llences aquesta pedra?
És per a colpejar al soldat
o per una altra cosa?
Potser no és pas per a colpejar al soldat,
el soldat és massa lluny,
potser és per una altra cosa,
una altra cosa
molt més important que colpejar a un soldat.

AZKENEAN

Jazarpen luze hartaz nazkatuta
aztiari zerbait egiteko eskatu zioten.
Izan ere umeak ibilian jaiotzen ziren
eta ipuinak izugarri sinplifikatu
eta laburtu behar izan zituzten
ahalik eta denbora gutxien galtzeko.
Gainera munduaren azken muturra hurbil ei zegoen.
Aztiak zin egin zien ihesaldia
gau hartan bukatuko zela
deidade ahalguztidunekin hitz egin ahal izateko
derrigorrezkoak ziren hiru txahalak
sakrifikatzen bazituzten.

Odola gorria da elurraren gainean.

Enperadorea bere gudarostearekin iritsi zenean
txoriak mututu egin ziren eta ura uzkurtu.
Zaldia arnasestuka zebilen.
Ehundaka oinatz txiki basorantz galtzen ziren.
Txingor hondarrak bizirik zeuden oraindik
errautsen azpian.

Beraien ondoan, lurrean,
itsas barraskilo bat utzi zuen norbaitek.
Ilargi kiribildu baten antza zeukan.
Hurbilen zegoen gerlariak jaso
eta belarrian jarri zuen.
Eskuz esku eta belarriz belarri pasatu zen
enperadorearenganaino.
Itsaso urrun bat zen entzuten zena.
Lur jota,
jeneralek herri haren ostetik ez jarraitzea erabaki
zuten.
Enperadorearen oniritzia begi triste bi
eta atzera egiteko keinu bat
izan ziren.

FORTUNAK EZ DITU AUSARTAK LAGUNTZEN

Audaces fortuna juvat.

Virgilio

Erlijio berria ekarriko dute
eta ez dugu onartuko.
Demokratizazioa hasiko da
bonbardero pisutsuen laguntzaz.
Berunezko almendra bi
sartuko dizkiete bihotzean gure seme-alabei.
Hotzera bultzatuko gaituzte.
Bortxatu egingo gaituzte beraien maitasunaren
izenean.
Nork daki agian tortura jadanik jasangaitza
bihurtzen denean
ni izango naiz lehen traidorea
eta salatu egingo ditut
gure erretaguardiako ohe guztiak.
Inperioak saritu egingo nau
behinolako neba-arreben fusilamentu pelotoian
egon nahi dudala esaten badiet.

Berandu izango da koherentziaz
edo justiziaren ideialez hitz egiteko.
Begietara begiratuko dizuet
tiro
egin baino mende bat lehenago.

BAKARRIK

Biktimek elkar hiltzen dutenez
borreroak ez du
ezer egin beharrik.
Esan didate hura dela nire etsaia
eta biok gaude nekatuegi
odolustuta, lur jota
armiarma sarean erortzen garenean.
Soilik pozoiak konortea galarazi baino
apur bat lehenago
ulertu dugu
elkarri eskua emanda posible zela
erantzuna
galderen atzamarretan kabitzen den
eraztuna.
Azken batean badakit zergatik diren
bere begiak stop seinale bi
eta azken batean berak ere badaki
ezin diodala gorrotoa baino eskaini,
berriro moral estetikoa gure ordez
gure barruan
armiarma ehuntzen ari den

poltsa hotzaren gainetik.
Izugarria da baina berdin zait sufritzea
berak beste sufritzen dudan bitartean.

PROTOFEMINISMOA

Esate baterako Granada 1921

Aurkitu zintudan goizerdian
iturrian garbitzen
zure aurpegia.
Zein egun eztia
zein iturri argia
zein esku ederrak
garbitzen zintuztenak.

Alkandora eman nizun
zure azal berdea
lehortu zedin
eta harro zuk
lehortu zenuen
zure amantalarekin.

KAPERA TXIKI BAT

Abandonatu nauen jendeari maitagarria deritzot
maitagarria eta batez ere argia
argia ihesa bertutea izan daitekeelako
bertutea traizioa edo hilketa izan daitezkeen bezala
baina traizioa edo hilketa baino dotoreago beti
askoz dotoreago beti ohea gau erdian isilean uztea
eta isilean musu ematea
azken musua azken keinu gozoa
gozoa aurrez aurre arantzak trukatzearen aldean
eta gutxienez gogoratzearen ariketa
ariketa lausoa posible bihurtzen da horrela
haizearen tolesturetan
kapera txiki bat eraiki daiteke eta bertan gorde
bertan gorde eroritako idoloak
eta guretzat aspaldi lokartu ziren begiak.

HARMONIAREN IZENEAN

Lasai
azken zigarroa itzaltzen duzun egunean
arima ez da zure aurka gehiago altxatuko:
kristalezko zerbait erori
eta apurtzen bada
alferrik da konpontzen saiatzea.
Eskuetan zauriak irekiko dizkizu.
Elaiek ere hotzarekin egiten dute alde
atzean isiltasuna utziz.
Pausoa eman behar zenuke.
Harmoniaren izenean eskatzen dizut
pausoa emateko.
Berdin zait modua baina egizu.
Hemen dagoeneko gorrotoa baino ez duzu pizten.
Tristea da zu horrela ikustea
suizida frustratu baten antzera
eskailerak igo eta igo
solairuak kontatu eta kontatu
inoiz azoteara
iritsi
ezinik.

Nagasaki Dresde Gernika odola eta batez ere ezkerreko aldean hildako umea besoetan duen emakumeari aire triunfaleko zezenaren ondoan umearen leihoak barrurantz irekita azala gogoratu betirako bonbarderoari begira-gira umea begira ari da hiria laster moztuko duten haria eta erdi errea ardi larrea zure irribarrea. Inoiz esan ezin izan nizuna hemen da. Bele beltzek ikatzezko dadoak mokoetan. Min eman nahi dizute laztana inoiz esan ezin izan nizuna hemen da. Segundo bat lehenago dena, segundo bat geroago hondarrak eta hondar gehiago errautsen gazi-geza ezereza guztia alferrik guztia zero. Heriotza biltegi erraldoi bat bihurtu da atzera historia histeria difteria zehaztasunez errepikatuz kalkatuz kopiatuz doa izterretan hesteetan bekoki oraindik gazteetan lorontziak

ttua horrorea bider mila zati kea eta horrela. Gauzak badoaz eta badatoz baina batez ere joan doaz odola eskutik eskura paisaje bolkaniko hau baino ez da geratzen teatro apokaliptiko hau

gerizpe bakar bat
lotsa bakar bat
txori bakar bat
txori guztien izenean odola kantatzen.

VERDUN

Gu apurtuta eta odoleztatuta gaude.
Etsaia ere horrela ei dago.
Ez dakigu ezer desgasteko ofentsibez
eta eraso metodikoez.
Dakigun gauza bakarra da
gutxienez lubakira ez dela metrailazko euririk
sartzen.
Maite gaituztenei idazten ematen dugu denbora.
Guk honezkero ez dugu inor maite.
Ez da inoiz gutako inor hil gutun bat
bidali behar zuen gauean.
Azkenengo orrialdean
lora bi edo zisne biren marrazkia
joan ohi da.
Ez dugu lar hitz egiten amaieraz
eta ze amaiera mota izango den.
Baina guk ez genuke zertan hemen egon.
Gerrak ekidin daitezkeela egia da.
Arma-fabriketan ere ahapeka komentatzen dute
egia dela.

USUALIA

Noiz edo noiz existitu bide zen Usualia.
Usualiaz hitz egiteko zaharrenek
begiak ixten dituzte.
Usualiari buruz entzuteko gazteenek
begiak parez pare
irekitzen dituzte.
Txoriak iratzartzea debekaturik zegoen
Usualian.
Denbora laburra zen eta laburra luzea
eta burdina jaten zuten.
Usualieraz zerbait esan
eta poeta deitzen zizuten.
Usualian zoriontsuak zirela zioten.
Usualian aberatsenak leiho gehien zutenak ziren.
Jainkoa minuskulaz idazten zen.
Usualian euforia zati proportzionala egokitzen
zitzaion
biztanle bakoitzari.
Usualian udaberria dekretuz hasten zen
Usualian amodioa librea zen
hain librea

non ez baitzekiten
nora egin zien
ihes.

Atzeko atea

OI, MAGAK OMENALDI HORI MEREZI ZUEN

Hostoak grapatu liburuak egiteko
txarteletan zerbait idatzi norbaiti emateko
urteak betetzen baditu.
Musuak erreserban eduki edozeinek
larrialdi bat balu.
Zapi gorriak zuhaitzetatik zintzilik jartzeko.
Pintura gorria botatzea makarroiei.
Bizikletak kalean utzi eta etxera erretiratu.
Eguzkia. Haizea. Belauntziak.
Hegan
egin.
Ardoa guretzat eta ura landareentzat.
Klasean lo geratzea.
Kokoaren oskolez egindako eraztuna.
Ez jakitea zer gertatzen den
gertatzen dena txarra bada.
Bakardadea
hala aukeratzen dugunean

eta beldurra
heriotzari ihes egiteko balio duen neurrian
bakarrik.
Olagarro erraldoien istorioak portuetan.
Eskolak eraikitzea.
Ortozik ibiltzea irinaren gainean.
Artea egotea bere mila formekin
gure eguneroko ekintzetan.

AMETSETIK ITZULTZEAN

Eguzkiak iluntzetan erreka azpia urrezko
txanponez
betetzen duela dirudien arren
harria baino ez da altxor hori.
Antzerako zerbait gertatzen da gurekin
ez al gara gu ere azken batean gezurra
ez al da materia hasieratik gorotza
jakin nahi zaitut
gauetan aldez alde gurutzatzen nauzunean
jakin nahi zaitut
sakonago
azalpen garbienean
irudimen ariketa pasiboena zara eta hala ere ez
zaitut
dudan jartzen
harik eta iratzarri arte.
Egia esan bizitza baino sinesgarriagoa zara
zati txikienean zarelako osoa
ez dirudi nigandik sortu zarenik ere
eta bueltan ezin dut gogoratu paisajea
apurtu egiten zara hostorea bezala

izan dudan irudi bete hori eramanez
hondoratuz subkontzientearen putzu lehorrean
esku artean geratzen zaidalarik izpi ahulena
imajina anekdotikoena
souvenir tristea.
Negarrez hasten naiz ez dudalako
errealitatearen alde honetan geratu nahi
lo nagoenean mugara eramaten nauzu
lo nagoenean ez dut iraganik eta etorkizuna
suma dezaket
amama ikusi nuenean bezala txakurkume hila
eskuetan zekarrela
edo erlea granadari segurtagailua kentzen.

ZERGATIK HAIN URRUN EGIA

Txori itsua elurraren gainean izozten denean
zoriontsua da.
Zoriontsua da beste aldean zerbait lapurtu
eta honaino ekartzea lortu duelako.
Nik ere eskuak airerantz zabaltzen ditut
eta min ematen didate.
Nostalgiara bidean apurketa bat dago garenaren eta
izan nahiko genukeenaren artean.
Barrikadaren alde honetan ez dugu etorkizunik.
Beldurra despistatzeko kafea egiten dugu
eta loreen irinarekin koloreztatzen dituzu masailak
eta nik bizi guztia daukat zuri buruz idazteko.
Begiratzen dizun inor ezin da lokartu.
Isiltzeko eskatzen dizut eta musukatu egin nahiko
zintuzket
egiten duguna eta egin beharko genukeena
ez daitezen inoiz gehiago gauza bera izan.
Ideia inkonexoak etortzen zaizkit
sexuari edo trenei edo whiskyari buruz
baina begiak itxi eta lokatza da dena berriro.

Tristuraz inflamatuta nabil.
Horregatik da nire haragia argizarizkoa
eta nire poesia betilez betetako poltsa bat.
Esan dizut behin baino gehiagotan
gaur egungo stakhanovismo literarioaren aurka
nagoela.
Oraindik bihozkadetan eta sinestesian sinesten dut.
Horregatik entzun dezaket haizea ez dakit zeren
bila.
Horregatik usteltzen da ume bat nire barruan.